

2.776 herritarrek parte hartu dute Elorrioko baheketan


Elorriko udala
Hilario Azkarate Frontoia

Azken egunetako datuak kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak baheketa egitea erabaki zuen Elorrion. Astelehenetik eguaztenera, 19tik 65 urtera bitarteko 3.800 herritar inguru egon dira baheketa selektibora deituta, eta, guztira, 2.776 elorriarrek parte hartu dute. • 8

Martxoaren 31 gogoratuko dute Durangon eta Elorrion

Erreportajea • Soriatik zetozen Aviazione Legionariako militar italiarrek suntsipena ekarri zuten Elorrion eta Durangora 1937ko martxoaren 31n. Eraso hura gogora ekartzeko, ekitaldiak antolatu dituzte Durangaldeko herri bietan. Durangon, ikasleek landuriko bideo lan

batek bonbardaketari buruzko gogoetak batu ditu. Material hori guztia Andra Mariko elizpean ikusi ahalko da martxoaren 31n. 19:30erako, ekitaldia antolatu dute leku berean. Elorrion plaka bat ipiniko dute memoria historikoa oroitzeko egindako muralaren ondoan. • 2-3



AKÍ DURANGO
ORAIN DA


COMPACT

SENTITU
ALDAKETA

LEROY MERLIN DURANGO · MONTORRETA KALEA, S/N

Ikasleen bideo lan batek bonbardaketari buruzko gogoetak batuko ditu Durangon

Gertakarien transmisioan sakontzea izan da martxoaren 31ko erasoaren urteurrena gogoratzeko ekimenaren helburua

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Datorren eguaztenean 84 urte beteko dira Durango bonbardatu zutenetik. Urtero lez, ekitaldi sorta antolatu dute Martxoaren 31ren harira. Aurtengo ardatzetariko bat transmisioa lantzea da, eta ikastetxeekin elkarlana sakondu dute. Horrela, giza eskubideen gaia landu dute ikastetxeetan, eta bertatik irtendako hausnarketekin bideo muntaia bat egin dute. Horrez gainera, ikasleek bonbardaketaren zein gaur egun munduan dauden gatazken gainean egindako gogotak paneletan jaso dituzte. Material guztia martxoaren 31n egun osoan zehar ikusi ahalko da, Andra Mariko elizpean.

Ikasleen artean transmisioa lantzea helburu duten beste ekimen bi Book Trailer lehiaketa eta irrati tailerra dira. Tailerra martitzen honetan izan da, San Agustin Kultur Gunean. Book Trailer lehiaketaren sari banaketa apirilaren 17an egingo dute, toki berean. Eskualdeko bost ikastetxek parte hartu dute ekimenean.



Durangoko Udaleko eta Gerediaga Elkarteko ordezkariak Kurutzesantu Museon.

Oroimen ekitaldia

Urtero lez, bonbardaketan hil zirenei oroimen ekitaldia egingo diete martxoaren 31n. Gerediaga Elkartetik aurreratu dutenez, aurten aldatu egin dute ordua eta 19:30ean izango da, Andra Mariko elizpean.

Ekitaldian Josefi Izacelayak lore eskaintza egingo du bonbardaketako testigu lez. Ondoren, Kriskitin Dantza Taldeak saioa eskainiko du. Horrez gainera, bonbardake-

tako lekukoaren testingantzak jasotzen dituen bideoa ikusgai egongo da Andra Mariko elizpean, egun osoan zehar. Durango 1936 Kultur Elkartek jasotako testigantzak dira.

Ekimenean parte hartu ahal izateko, izena aurretik eman behar da, gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikora idatzita edo 94 681 80 66 telefono zenbakira deituta.

Hitzaldia martxoaren 30ean

Martxoaren 30ean, 19:00etan, 'Conflictos armados y control de los recursos naturales' izeneko hitzaldia eskainiko du soziologian doktorea den Guillermo Otanok, Durangoko Landako Elkartegian. Izena aurretik eman beharra dago hitzaldian parte hartzeko, honako helbide elektronikoa: landakosotoak@durango.eus.

Elorriko bonbardaketan hildakoak gogoratzeko plaka

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorriko Udalak, Lamunarrieta elkarteagaz batera, Elorriko bonbardaketan hildakoak gogoratuko ditu martxoaren 31n. Memoria historikoa berreskuratzeko eginiko muralaren ondoan plaka bat ipiniko dute. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. 1937ko martxoaren 31n Avia-

Memoria historikoa berreskuratzeko eginiko muralaren ondoan plaka bat ipiniko dute

zione Legionaria hegazkinen 213 eta 214 eskudrilek Elorrio bonbardatu zuten, Durangogaz batera, 8:30 inguruan. Erasoaldi bateratua izan zen.

“Durangoko bonbardaketaren inguruan zer dakiten galdetu gura nien herritarrei”

Iban Gorriti kazetariak 'Durango 1937' dokumentala estreinatu du Zugaza zineman; domekan proiektatuko dute, 12:00etan. Bestalde, 'Antzola'-ren erakusketa antolatzen parte hartu du

DURANGO • JONE GUENETXEA

Herritarrek bonbardaketaren inguruan dakitena dokumental batean jaso du Iban Gorritik. Bestalde, Mauro Saraviagaz batera, José María Anzola 'Antzola'-ren inguruko argaz-

ki erakusketa prestatzen lagundu du Arte eta Historia Museon.

Dokumentalari dagokionez, zelan sortu da proiektua?

Martxoaren 31 gerturatzen zebilen

neurrian, nik neuk sortutako bideo dokumentalak proiektatzea adostu nuen Zugaza zinemako jabeagaz. Alde bien arteko ekimen pribatu bat da, hirugarrenentzako plusbaliarik sortu barik. Baina proiektua

zabaldtu egin da eta 'Durango 1937' Chesterren (Ingalaterra) bizi den eta ezagutzen ez nuen pertsona batek editatu du.

Zein ikuspuntu lantzen du dokumentalak?

Abiapuntua da gerra batean inork ere ez duela irabazten. Denok galtzen dugu. Bigarren ideia da bonba faxistek alde bietako pertsonak hil zituztela. Horixe da faxismoaren zentzugabekeria. Durangoko bonbardaketaren inguruan zer dakiten galdetu gura nien herritarrei. Gogorazten dugu zein hiru potentziek parte hartu zuten: Hitlerren naziek koordinatu, Musoliniren faxistek exekutatu, eta Molaren kolpistek proposatu zuten.

Non ikusi ahalko da?

Atzo hiru emanaldi eman genituen. Domekan, martxoak 28, 12:00etan proiektatuko dugu eta baita martxoaren 31n ere, 17:15ean.

Arte eta Historia Museoko erakusketan ere parte hartu duzu. Zelan deskubritu zenituen Antzolaren argazkiak?

Berak ateratako argazkirik gehienak ezagutzen genituen, baina ez genekien norenak ziren. Bitxia da erakunde batzuek argazki horiek euren jabetzakoak zirela esatea, egilea José María Anzola 'Antzola' zela aitortu barik. Mauro Saravia argazkilari arratiarra konturatu zen publikazio abertzaleetan argazkila-

ri batek 'Antzola' izenagaz sinatzen zuela. Saraviak horixe kontatu zidan eta ikertzen aritu ginen. 'Antzola'-ren familiagaz egon nintzen eta oso material interesgarria gordeta zutela konturatu nintzen. Museoko erakusketan bere argazki kamera ikusi daiteke, orain 84 urte hemen egon zena. Euzko Deya aldirikarirako Caracasen errebelatu zituen argazkiak ere badaude. Bere galoiak, eskuz egindako ikurrin txiki bat edo ezagutzen ez diren fronteko argazkiak. Gainera, Mauro Saraviak unitate didaktiko batzuk prestatu ditu ikastetxeetarako.

'Antzola' asko miresten dugu, eta, horregatik, Saraviak eta biok 'Euskal Robert Capa' esaten diogu

IBAN GORRITI

Nor zen 'Antzola'?

Bilbotarra zen, Otxandiano batailoiko gudaria. Malato batailoiko komandante izatera heldu zen. Unitate biak EAJrenak ziren. Euskadiko behin-behineko gobernuak eskatu zion Durangon eta Gernikan bonbardaketaren osteko argazkiak ateratzeko. 'Antzola' asko miresten dut, eta, horregatik, Mauro Saravia eta biok 'Euskal Robert Capa' esaten diogu.



Mauro Saravia, Iban Gorriti, Iker Anzola eta Garazi Arrizabalaga.

Guardia Zibilak tiroz hildako José Emilio Fernándezi buruzko erreportajea, bertsio ofizialaren gaineratik "egia ezagutarazteko"

1978an, Guardia Zibilak auto bateko hiru bidaiari tirokatu zituen Apatamonasterion. Durango 1936 Kultur Elkarteak erreportaje bat kaleratu du urtekari berrian, ordukoa argitzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango 1936 Kultur Elkarteak beste mugarri bat ipini du eskualdeko memoria historikoa berreskuratzeko bidean. Urtekari berria kaleratu du, eta argitalpen berriaren aurkezpena egin du asteon. Landutako edukien artean, bi nabarmendu ditu elkarteko kide Andoni Barreñak: Jon Irazabali eginiko elkarriketa, eta Guardia Zibilak 1978an hildako José Emilio Fernández elorriarrari buruzko erreportajea.

Erreportajearen kontatzen denez, Guardia Zibilak auto bateko hiru bidaiari metrailatu zituen 1978ko ekaineko gau batean Apatamonasterion, Durangotik Elorriaroko bidea egiten zebiltzala. 16 urteko gazte elorriar bat hil zuten tiroketa haren ondorioz: José Emilio Fernández. Sasoi hartako bertsio ofizialak jaso zuenez, auto gidariak polizia kontrola gainditu zuen, eta horrek eraginda hasi zuten tiroketa agenteek. Baina gertatu zena oso bestelakoa da autoan bidaiari joan zirenen eta euren familien

esanetan: "Ez zen ezelako polizia kontrolik egon". Alde horretatik, erreportajeak "egia ezagutarazi" gura du, eta garaiko bertsio ofizialak zabaldutakoa ezeztatu.

Oroimen "desegokia"

Andoni Barreñak adierazi du 2021eko hasieran izan zutela gertakariaren berri. Gaia ikertzeari ekin zioten, eta honako hauen testigantza batu dute bertan: José Félix Mariás elorriarrarena (tiroketan hildako José Emilio Fernándezen laguna; autoan bidaiari zihoan tiroketa gertatutakoan), Javier Fernández elorriarrarena (José Emilioren anaia) eta Mitxel eta Jose Luis Zenitagoia elorriarrenak (euren aita izan zen autoko gidaria tiroketan).

Argitalpenagaz, Fernández zenaren eta autoan zihoazenen oroimena erreparatu gura dute, "oroimen desegoki, trakets eta maltzurra", Barreñaren esanetan. "Bertsio ofizialak jaso zuen txoferrarena izan zela errua. Baina ez zen kontrolik egon. Inork ere ez



Durango 1936 Kultur Elkarteak urtekari berria aurkeztu du asteon.

"Bertsio ofizialak jaso zuen txoferra ez zela kontrolean geratu, baina ez zen kontrolik egon"

zuen ikusi. Ez autoan bidaiari joan zirenek, ezta handik pasatutako beste autoetakoek ere". José Félix Mariásak egia zabaltzeari buruz berba egin du: "Gertatu zena hor dago ipinita. Egia esan behar da, gero erreparazioa eta justizia etor daitezten. Ez dakigu etorriko

diren, baina nire bihotzak justizia gura du", adierazi du. "Ez dugu gorrotorik jada. Justizia gura dugu. Eta erreparazioa", gehitu du Barreñak.

Aldizkaria Durangoko liburu-dendetan ipiniko dute salgai. Hitzen eta Urriken, adibidez.

BATXILERGOKO ATE IREKIAK

Martxoaren 26an eta apirilaren 16an, 17:00etan

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

EMAN IZENA

jhu Jesuitak
Durango
KRISTAU ESKOLA
Biharko ametsak, gaurko erronkak

Q
Urrezko Q ziurtagiria
94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.durangojesuitak.org

Durangoko udalbatzak udal lanpostuen behin-behinekotasuna murrizteko konpromisoa adierazi du

Langileen komiteko presidente Iñigo Andresek ELAk, LABek eta ErNEk adosturiko mozioa aurkeztu du asteon egindako osoko bilkuran. Alderdi guztiek babestu dute testua



Iñigo Andres, Durangoko Udaleko langileen komiteko presidentea, asteon egindako osoko bilkuran.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udalbatzak langile publikoen behin-behinekotasuna murrizteko konpromisoa hartu du asteon egindako osoko bilkuran. Iñigo Andresek, udaleko beharginen komiteko presidentea, ELA, LAB eta ErNE sindikatuek babesturiko mozioa eraman du bertara, eta testuak aurrera egin du alderdi politiko guztien babesagaz. Honako ideia nagusi hauek onetsi dituzte: "kontratazioetan behin-behinekotasuna gehiegikeriaz" erabiltzeari uztea, eta hori lortu ahal izateko "beharezko arau-aldaketak bultzatzea". Azken puntu hau dela-eta, Durangoko udalbatzak marko legala moldatzea eskatu die bere gaitetik dauden instituzioei, horrela, behin-behinekotasunaren arazoari "modu egokiagoan" heltzeko.

Andresek dioenez, instituzio publikoetan behin-behineko lan-

postuen "abuso" bat dago, eta Durangoko Udala ez legoke egoera horretatik salbuetsita. "Espainiako Enplegu Publikoaren Legeak %8an kokatzen du behin-behineko lanpostuen gehieneko kopurua. Durangon %40koa da kopuru

"Behin-behineko postuen gehieneko kopurua ezin da %8tik pasatu; Durangon %40an gaude"

Durangoko udalbatzak marko legala aldatzea eskatu die bere gaitetik dauden instituzioei

hori", dio. Gaur egun, Durangoko Udalak "240 bat behargin" ditu bere esanetara. Administrazio lanean, udal egituraren bertan dauden

langileak daude alde batetik. Eta erakunde autonomoetako beharginak bestetik: Bartolome Ertzilla musika eskolako beharginak, Astarloa Kulturgintzakoak edo Durango Kirolak erakundeak, besteak beste. "240 langile horietatik, 100 inguru behin-behineko egoera batean daude. Askok 12 edo 15 urte daramatzate egoera horretan, eta bada 20 urte daramatzaneren bat ere", azaldu du Andresek.

Eta zelan joan behin-behinekotasuna gutxitzen? Bada, Andresen esanetan, Lan Eskaintza Publikoek ahalbidetuko lukete joera hori hartzea. OPE deiturikoek. "Egiten den Lan Eskaintza Publiko kopurua ez da nahikoa", bere ustez. Eta egiten direnek lanpostuan urteak daramatzatenean esperientzia hartu beharko lukete kontuan. "Bidea erraztu beharko litzaioke lanpostuan urteak daramatzanari", dio.

3.000 metro karratuko guner berde bat egingo dute Durangon, TADUko aparkalekuaren ondoan

Durangoko Udalak eta ETSk akordioa lortu dute Fauste-Landako geltokia zegoen tokian berdegune bat atontzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak 3.000 metro karratuko berdegune bat atontzeko du Untzillatx kalearen bueltan, sasoi bateko Fauste-Landako tren geltokia zegoen orubean. Lanok TADUko aparkaleku berriagaz batera egingo dituzte eta, horregaz, apurka-apurka herria

bitan banatzen duen trenbide zaharra desagertzen joatea gura du udalak. Udalak joan den urtarriaren 29an egin zion proposamena Euskal Trenbide Sareari, eta akordioa adostu dute alde bietan. Lanek 24.468 euroko aurrekontua izango dute. Inbertsioa udalak hartuko du bere gain.



Sasoi bateko Fauste-Landako geralekuaren arrastoak, Untzillatx kalean.

Umeen iritzia udal politiketan islatzeko kontseilua sortu dute

Durangoko Udalak eta herriko ikastetxeetako 10 eta 12 urte bitarteko haurrek Umeen Kontseilua eratu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko umeek foro bat izango dute aurrerantzean, euren iritzia eta nahiak alkateari eta udal ordezkariari helarazteko. Umeen Kontseiluak lehenengo bilkura egin du. Ikastetxeetako 10 eta 12 urte bitarteko umeek, euren gurasoek eta Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak parte hartu dute eraketan. Udal ordezkarien esanetan, Umeen Kontseilua "baliagarria" izango da udal "jardueren hobekuntzarako".



anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko martxoaren 26a
19. urtea - 844. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

AEKren 'Bultza euskaltegiak, bultza euskara' ekimena Durangon, Elorrion eta Zornotzan

Euskararen erabilera bultzatzea eta Korrika ez antolatzeak eragingo dituen kalte ekonomikoak arintzea da ekimenaren helburua. Euskal Herriko hainbat herritan antolatuko dute ekimena, egun eta ordu berean: maiatzaren 28an, 12:00etan

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Pandemiak eragin duen albo kalteariko bat euskararen erabilera igarri da. Itxialdia tarteko, haur eta gazte askok euskara espazioak galdu dituzte. Gainera, euskararen sustapenerako antolatzen zen hainbat ekitaldi bertan behera geratu da. Besteak beste, 2020ko abenduan Korrikaren 40. urteurrena zen ospatzekoa. 2021eko urtarirlean, 55 urte bete dira Rikardo Arregik helduen euskalduntze eta alfabetatzean eragiteko gutuna idatzi zuela. AEK-ko ordezkariak azaldu dutenez, "ekimen biek ekarpen handia egin diote euskararen ezagutza eta erabilerari, eta AEK oso argi dugu Rikardo Arregiren bultzada horri eskerrak garela garenak: euskararen aldeko ekintzaile, irakasle eta militante".

Korrikarik barik

Korrika antolatu barik, AEK-k bere ekarpena egin gura izan du euskara plazara ateratzeko. Korrikaren amaiera eguna izan beharko zu-

Bertsolariak eta grafitigileak egongo dira. AEKren mezua irakurri eta 'Euskal Herrian Euskaraz' kantatuko dute

keen egunerako bertarako, martxoaren 28rako, ekitaldiak antolatuko dituzte Euskal Herriko hainbat herritan, momentu berean. Ekimenaren leloa *Bultza euskaltegiak, bultza euskara* izango da. Durangaldeari dagokionez, Zorno-

tzako Zelaieta Plazan, Durangoko Santa Ana Plazan eta Elorrioko Plazan batuko dira. Besteak beste, bertsolariak eta grafitigileak egongo dira. Guztietan, AEKren mezua irakurri eta *Euskal herrian Euskaraz* abestia kantatuko dute.



2019ko Korrikako irudia Durangaldetik pasatzen.

65 urtetik gorakoei zuzenduriko MOBI Durangaldea martxan da Garain

GARAI • JOSEBA DERTEANO

Durangaldeko beste herri batzuetan martxan ipini eta gero, MOBI Durangaldea ekimena Garaira heldu da. Atzo izan zuten lehenengo hitzordua, kultur etxean, 09:00etatik 14:00etara. Hemendik aurrera, egun eta ordu horretan bilduko dira.

Zerbitzua, batez ere, ohitura sedentarioak dituzten eta me-

Ohitura sedentarioak dituzten 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago

dikuak horrela aginduta edo euren borondatez osasuna hobetu gura duten eskualdeko 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. Mankomunitateak martxan ipinitako ekimena da. Informazio gehiagorako, mobi1.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzi edo 747 493 680 telefono zenbakira deitu daiteke.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

Jostaiurreta enpresa-proiektuan baturiko 150 euroak Geu Be elkarteari eman dizkiote

Iurretako Lanbide Heziketa zentroko 50 bat ikaslek parte hartu dute aurten Jostaiurretan; Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Ikasapresa programaren barruan jostailuak sortu dituzte, eta gero ikasle eta irakasleen artean saldu

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Lanbide Heziketako ikastetxeak Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Ikasapresa programan parte hartu du Jostaiurreta enpresa proiektuagaz. Aurten, hirugarrenez parte hartu du. Automozio, mekanizatu eta administratza zikloetako ikasleei, aurten, mendokotasuna duten personentzako arreta ziklokoak ere batu zaizkie. Bada, 50 bat ikaslek lan egin dute Jostaiurretan. Jostailuak sortu dituzte eta ikasle eta irakasleen artean saldu dituzte. Guztira, 150 euro batu dituzte eta diru hori Geu Be elkarteari eman diote dohaintzan.

Automozio zikloko ikasleak dira Jon Lauzirika eta Gorka Caro, eta mekanizatuan dihardu Karim Herrerak. Hiruiek onartu dute esperientzia "berezia" eta "lagungarria" izan dela Jostaiurreta: "Ondo sentiarazten gaituen egitasmoa da eta ikasketa bat ere bada, ez gaude-eta halako jostailuak egitera ohituta".

Dohaintza Geu Be elkarteari

Geu Be elkarteko Laura Castrillok eta Julen Bengoak asko eskertu dute Iurretako Lanbide Heziketa Zentroaren dohaintza. "Oso positiboa da elkartearentzat, gure gazteentzat, egindako lana baloratzea eta aintzat hartzea, eta diru hori



Iurretako Lanbide Heziketa zentroko ikasle eta irakasleak eta Geu Be elkarteko arduradunak.

oso lagungarria dugu askotariko ekintzak antolatzeke", esan dute.

Jostaiurreta proiektua esperientzia "berezia" eta "lagungarria" izan dela diote ikasleek

Administratza zikloko irakasle den Izaskun Iturrik azaldu duenez, ekintzailatzagaz loturiko lehenengo hartu-eman da Jostaiurreta, askotariko zikloetako ikasleei elkarlanean jarduteko aukera eskaintzen diena. Ikasleentzat aberasgarria dela uste du. "Jostaiurretaren helburua da ikasleek eginiko piezei etekina ateratzea, eginiko lanak

balio bat duela erakustea", azaldu du Alex Azkoeta proiektuko arduradunak. Tknikaren (LHrako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa) bitartez koordinatzen du Jaurlaritzako Ikasapresa proiektua, eta erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleei zuzenduta dago. Enpresa mundua ikasgeletara hurbildu gura du Ikasapresak.

Iurretako EH Bilduk bilkurak bideoan grabatzeko eskatu dio gobernu taldeari



IURRETA • EKAITZ HERRERA

Iurretako EH Bilduk osoko bilkurak eta batzorde informatiboak bideoan grabatu ditzala eta horiek webgunean herritarren eskura ipini ditzala eskatu dio gobernu taldeari. Prentsa oharrean adierazi dutenez, eskaria ez da berria. 2020ko urriaren 14an eskabide bat erregistratu zuten: "Ordutik hona jaso dugun erantzuna izan da udal gobernuak bideo-akta ezarri gura duela eta lanean dabilzala". Diotenez, "dena martxorako prest egongo zela erantzun arren, ez dugu uste hala izango denik".

Koalizioaren esanetan, "beharrezkoa" da "herritar orok batzorde informatiboetan eta bilkuretan gertatzen denaren berri zuzena izatea. Are gehiago, publikoak izanik, eztabaidatzen eta erabakitzen dena eskuragarri egotea ezinbestekoa da, lehenbailehen".

Larreako haurreskolan garbitasunerako eta elikadurarako gune bana atonduko dute udan

Zornotzako Udalak 0-1 urteko gela biak birmoldatuko ditu umeen opor sasoian. Lanak lizitazio publikora atera dituzte



Larreako haurreskolaren barrualdea.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Aurreikusitako epeak betetzen badira, Larreako haurreskolak itxura berria estreinatuko du datorren ikasturte hasieran. Zornotzako Udalak 83.415 euroko diru poltsa aktibatu du eraikin barrua eraberritzeko. Hain zuzen ere, birmoldaketak egingo dituzte 0-1 urteko gela bietan, elikagaien prestaketarako eta garbitasun gaietarako gune berri bana atontzeko. Aldaketari eskerrak, ume eta hezitzaileak erosoago egongo direla adierazi du Eneritz Lejarzegi haurreskolako koordinatzaileak: "Haurreskolan 0-1 urteko gela bi ditugu. Lanekin gela biak eraberrituko dira eta lotarako gune bat irabaziko dugu. Deskantsurako isiltasuna eta iluntasuna eskain-

tzen dituen gunea irabaziko dugu. Horrela, ume bakoitzak bere erritmoan egon ahalko du. Batzuk olgetan dauden bitartean, lasai-lasai egon ahalko dira beste batzuk", azaldu du Lejarzegik. Bestetik, garbitasun gaietarako gune bat eta elikagaiak prestatzeko beste bat atonduko dituzte lanok eginda. "Gela barruan office bat izango dugu, hozkailu bat eta mikrouhin labe bat izango dituena", adierazi du Lejarzegik. "Dena eskura eta eroso izango dugu", dio.

0-1 urteko gelan hezitzaile bik lan egiten dute, gela bakoitzeko 8 umeko ratioagaz. Zornotzako Udalak udan egin gura ditu lanak, umeen oporraldian. Dena dela, lanak dagoeneko lizitazio publikora atera dituela jakinarazi du.


Orekarte artisau azoka egingo dute zapatuan Iurretan, Askondo kalean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Orekarte artisau lanen eta bigarren eskuko objektuen azoka egingo dute zapatuan, martxoak 27, Iurretan. Askondo kaleko karpan egokituko dute merkatua, eta 14 erakustoki atonduko dituzte, artisauek euren lanak erakutsi eta saltzeko. Era berean, antolatzaileek azaldu dutenez, beste sei postu ere ipiniko dituzte, bigarren eskuko objektuak eskaintzeko. Azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

Aurten, Orekarate elkarteak bigarrenez antolatu du azoka, Iurretako Udalaren eta beste hainbat elkarteren laguntzagaz: Iurretako ostalariak, Iurretako Gazte Asanblada, KSK Seletorra kolektiboa, eta Río de Oro eta La Otra Mirada.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea behea eskuma MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk. 48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

2776 herritarrek parte hartu dute Elorrion egindako baheketan

19tik 65 urtera bitarteko 3.800 elorriar inguru egon dira deituta asteen egin duten baheketara



Astelehenean hasi ziren baheketa egiten Elorrion.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken egunetako datuak kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Elorrion baheketa egitea erabaki du. Hori horrela, astelehenean eguaztenera bitartean, Elorrioko kiroldegian baheketa selektiboa egin dute. 19 urtetik 65 urtera bitarteko 3.800 herritar inguru egon dira baheketa selekti-

Osakidetzako Lehen Mailako Arreta buruak esan du ez dutela fokurik aurkitu Elorrion

bo horretara deituta, eta, guztira, 2776 lagunek parte hartu dutela jakinarazi dute. "Birusaren hedapena murrizteko, beharrezkoa da herritarrek baheketan parte hartzea", azaldu zuen Idoia Buruaga Elorrioko alkateak astelehenean eginiko agerraldian.

Fokurik ez

Bestalde, astelehenean eginiko agerraldi horretan, Iñaki Intxausti Osakidetzako Lehen Mailako Arreta buruak baieztatu zuen ez dutela fokurik aurkitu Elorrion, baina azken egunetako joera ikusita beharrezko ikusi zutela Elorrion baheketa selektibo hori egitea.

10 farol ipinita, bidegorriko argiztapena hobetu gura dute Atxondon

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bidegorriko argiztapena hobetzeko asmoz, hamar farol berri ipiniko dituzte Atxondon. Udaletik azaldu dutenez, ipiniko dituzten farolak led argidunak izango dira, eta Apatamonasterio eta Elorrio arteko zatian ipiniko dituzte. "Farolek segurtasun handiagoa emango diote inguruneari", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Urrezko lau domina Launa ardoentzat nazioarteko lehiaketan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Launa familia upategiko lau ardok urrezko lau domina lortu dituzte Catavinum World Wine & Spirits Competition nazioarteko lehiaketan. Hauek izan dira lehiaketara aurkeztu eta dominak eskuratutako ardoak: 2016ko familia-selekzioko erre-serba, 2017ko familia-selekzioko krietza, 2018ko krietza eta 2020ko Oiz Viura-Chardonnay.

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Matrikulazioa : Apirilak 12tik 21ra arte



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA

Trañaetxoste, 10
ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino
@haurreskolak.eus



ELORRIOKO HAURRESKOLA

Goieta, 62
ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio
@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA

Margarita Maturana, 4
BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz
@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA

Intxaurti, 12 - behea
MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia
@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA

Larrea auzoa, z/g
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta
@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA

Foruen plaza, 7
ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo
@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA

Olaburu, 5
IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta
@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA

San Trokaz enparantza, 7
ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino
@haurreskolak.eus

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

Herriko Taberna eraberritzeko lanen baldintza orria onartu eta lehiaketara atera du Mañariko Udalak

Lanak 250.000 euroko inbertsioa izango dutela aurreikusten dute; interesdunek 20 egun dituzte proposamenak aurkezteko

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Astelehenean udalbatzarra egin zuten Mañarian, eta Herriko Taberna eraberritzeko lanen baldintza orria onartu zuten bertan. 250.000 euroko inbertsioa aurreikusten dute. Dokumentua asteon argitaratu dute, eta, une horretatik aurrera, interesdunek 20 eguneko epea dute euren proposamenak udaletxean aurkezteko.

Herriko Tabernaren barrua guztiz berriztuko dute, eta berrikuntza integral bat izango da. Barra handiagoa izango du, sukaldia eraberrituko dute eta bazkariak emateko gunea ere handitu egingo dute, beste lan batzuen artean.

Herriko taberna eraberritua aurrekoa baino handiago izango da. Espazio gehiago izango du. Izan ere, orain eraikin berean dagoen mediku kontsultategiaren gunea tabernara gehituko dute. Beraz, gaur egun tabernak dituen 150 metro karratuei beste 35 bat gehituko dizkiete. Espazio berri hori egoki-

tzeko lanak beste proiektu batean sartu dituzte eta proiektu nagusiaren aurretik egingo dira. Hain zuzen ere, mediku kontsultako espazioa birmoldatzeko lehiaketa publikoa aste honetan amaitu da. Orain, lanak esleitu aurretik, heldu diren proposamenak baloratuko ditu udalak.

Kokapen berria

Beraz, mediku kontsultategiari kokapen berria bilatu behar izan dio udalak. Zegoen tokitik gertu eta herriko erdigunean izango du egoitza berria orain: Evaristo Bustintza kaleko 19. zenbakian, udaletxearen ondo-ondoan. Rafa Harategia zegoen dendaren ondoko lokal bat da. Udalak dendagaz batera —berez espazio bakarra delako— erosi zuen eta funtzio berri hori emango dio, lokala egokitu eta material guztia hara eramanda. "Kokapen horregaz herriko zerbitzu guztiak zentralizatuta mantenduko dira", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.



Herriko Tabernaren barrualdeari berrikuntza integral bat egingo diote.

Mediku kontsultategia Evaristo Bustintza kaleko 19. zenbakian dagoen lokalera tokialdatuko dute

Gaur egun, pandemia hasi zenetik hona, mediku kontsulta asteke egun bitan egoten da zabalik: martitzen eta barikua goizetan, ordu eta erdian. Pandemiaren aurretik, astegun guztietan egoten zen zabalik.

Mañariko udalekueetan parte hartzeko izen-ematea hasi du Andra Mari elkarteak

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Andra Mari Aisialdi eta Kultur elkarteak, udalaren laguntzarekin, udalekuak antolatuko ditu aurten eta eurretan parte hartzeko izen-ematea abiatu dute. Udalekuak ekainaren 21etik uztailaren 18ra izango dira, 09:00etatik 14:00etara, eta aste-ka apuntatzeko aukera dago.

Lau urtetik gorako umeek parte hartu dezakete eta talde bitan banatuko dituzte adinaren arabera. Besteak beste, hondartzara eta igerilekura joango dira eta Mañaritik eta Izurtzako auzoetatik ibilbideak egingo dituzte. Jolasak, gynkanak eta sukaldaritza saioak ere egongo dira. Elkarteko kideentzat 55 euro da, kide ez direnentzat 65 euro eta Mañarian erroldatuta ez daudentzat 70 euro.

Izen-ematea honako helbidean egin daiteke: biagea77@gmail.com. Umearen izen-abizenak, jaiotze data, bizilekua, tutore edo gurasoaren izena, NAN zenbakia eta kontakturako e-maila gehitu behar dira.

'Aztikeriak' magia saioa ikusgai egongo da gaur Mallabian

Tor eta Txoborro magoek elkarlanean sortutako ikuskizuna da

MALLABIA • J.D.

Hile bakoitzeko azken asteburuan ohi duen moduan, Mallabiko Udalak kultur ekitaldi bi antolatu ditu pilotalekuan. Lehenengoa gaur bertan izango da: Tor eta Txoborro magoek *Aztikeriak*. *Magia ez da sekula berdina* izango izeneko magia ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etan. Zer gertatuko litzateke mago batek, loak hartuta, bere ikuskizunera joatea ahaztuko

balu? Egoera hau oinarri hartuta, mago biek elkarlanean sortu dute magia saioa.

Domekan, 12:30ean Gerard Morte eta Ivan Manzanero bikote katalanak *Fili busters* izeneko ikuskizuna ekarriko du Mallabira. Aparatu berezi bat erabilita, funambulismo eta oreka saio ikusgarriak egingo dituzte, eta hori guzti hori berbarik bako *klown* umoreagaz uztartuko dute.



'Aztikeriak' magia ikuskizuneko une bat..

Izurtzako liburutegian gora egin du umeen liburu mailegu kopuruak, eta bisitari berriak ere izan dituzte

IZURTZA • J.D.

Pandemia egoeraren eta denbora luzez norbere herri barrutik irten ezinaren ondorioz, herritarrek egoera berrira egokitu behar izan dute. Beharbada, horregaitik, Izurtzako liburutegian gora egin du umeen liburu mailegu kopuruak azken hileetan, liburutegiko iturrien

Gure dutenek Interneten bitartez edo helbide elektronikoz eskatu ditzakete liburuak

arabera. Beste nobedade bat da, jende berria ere joaten hasi dela liburutegira.

Liburutegiak honako orduetara: asteleheneetik eguaztenera goizean, 10:30etik 14:00etara, eta eguenetik barikura goizean (11:30-13:00) zein arratsaldean (16:30-18:30). Liburuak liburutegia.izurtza@bizkaia.org helbidean eskatu daitezke, besteak beste.



Babes Zibileko boluntario bat karpa berriaren aurrean.

Larrialdietarako karpa berria Babes Zibileko kideentzat

Bizkaiko suhiltzaileek formakuntza saioak eskainiko dituzte Aste Santuaren ondoren, eta Otxandioko Babes Zibileko boluntario taldeak horietan parte hartzeko asmoa du

OTXANDIO • J.D.

Otxandion gertatu daitezkeen larrialdi egoerei lehenengo erantzuna emateko ardura duen Babes Zibileko boluntario taldeak material berria jaso du Babes Zibileko ordezkarien eskutik. Hain zuzen ere, boluntarioentzako txalekoak eta larrialdietarako karpa bat jaso dituzte. Horrelako karpa bat

duten lehenengo aldia da. Orain arte karparik ez zuten beste herri batzuetako boluntario taldeei ere eman diete bana.

Horrez gainera, Bizkaiko Aldundiko suhiltzaileek formakuntza saioak eskainiko dituzte Aste Santu ostean, eta boluntario taldeak horietan parte hartzeko asmoa du.

Hezkuntza Sailak eta sindikatuek negoziazioa hasiko dute haurreskoletako lan ituna berrikusteko

Haurreskolak hezkuntza egituraren integrazioa "bideragarria" ote den aztertuko du Hezkuntza Sailak, LABen esanetan



Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileek eta familiek kalera irten dute asteon, Durangon.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bidegurutzez beteriko ibilbidea izango da beharbada, baina, gutxienez, bidea egiten hastea adostu dute alde bietan. Haurreskolak Partzuergoko sindikatuek eta

Hezkuntza Sailak negoziazioa hasiko dute apirilaren 21ean. Besteak beste, bertako negoziazio bide bat hastea adostu dute beharginen lan ituna berrikusteko. Kontua Gasteiz aldetik dator. Haurresko-

len Partzuergoan ordezkariak duten sindikatuek (LAB, Steilas, ELA) eta Hezkuntza Sailak negoziazio mahaia izan dute asteon, han. Sindikatuek bertara eraman dituzte azken hileotako mobiliza-

zioetan aldarrikatutakoak. Lorea Igartua elorriarra izan da negoziazio batzarrean parte hartu duen kideetarikoa. LAB sindikatuak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Haurreskolen auzian duen orde-

karia da Igartua, eta, bere esanetan, Hezkuntza Sailak "aintzat" hartu ditu sindikatuen eskarietarikoz. "Hezkuntza Sailak lan hitzarmen berria negoziatzen hastea onartu du. Egutegi bat ezarri du horretarako. Apirilaren 21ean egingo da lehenengo negoziazio batzarra, Aste Santuaren ondoren", baieztatu du.

Batzarrean berba izan duten beste puntu bat Haurreskolen Partzuergo Hezkuntza sistemaren barruan integrazioari buruzkoa

LAB: "Gatazka desblokeatu da. Badirudi mobilizazio dinamikak erantzuna izan duela"

izan da. Igartuak adierazi du Hezkuntza Sailak plan estrategiko bat egingo duela hori "bideragarria ote den jakiteko". Dena dela, LABeko kideak esan du "ikusteke" dagoela dena. "Orain arteko gatazka desblokeatu egin da behintzat. Badirudi aurrera eraman dugun mobilizazio dinamikak erantzuna izan duela", gaineratu du.

Haurreskolak Partzuergoko sindikatuek hainbat mobilizazio egin dute azken hileotan. Azkena, martitzenean, Durangon.

Goxentziarako zubiko lanak "baimenik barik" egiten dabilzala salatu dute

AHTaren obren barruan, "Muntsarzetik Goxentziarako zubiko obretarako beharko lituzketen hiru baimenetatik bakarria dute", AHT Gelditu Elkarlaneko kideen esanetan

ABADIÑO • A.M.

Abiadura Handiko Trenaren obren barruan, Abadiño Muntzarzetik Goxentziarako bidean dagoen zubia sendotzen hasi ziren. Horretarako, ibilgailu astunak erabili dituzte eta, AHT Gelditu Elkarlaneko kideek salatu dutenez, "obra horiek beharrezkoak diren baimen ba-

rik" egin dituzte. Plataformako kideen esanetan, hiru baimen beharko lituzkete lan horiek egiteko: URA Agentziarena, Foru Aldundiko Ingurumen Sailarena eta Abadiño Udalarena. Baina URaren baimena baino ez dute. Hori salatzeke, dozenaka lagunek elkarretaratzea egin zuten Txanporta plazan, domekan.



Domekan Txanporta plazan egindako elkarretaratzea.

Zaldibarko Udalak 20.000 euroko partida ipiniko du ostalariei laguntzeko

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalak 20.000 euroko diru partida ipiniko du herriko ostalariei laguntzeko. Laguntzak martxoan, ekainean, irailean eta abenduan banatuko dituzte. Oinarriak udalaren webgunean daude ikusgai. Ostalariek apirilaren 7ra arte eskatu ditzakete laguntzak. Bestalde, 2020ko azarotik 2021eko otsailera arteko zabor eta estolderien tasak bueltatu egin direla adierazi du udalak.

Gure Lanbide Heziketa

Zatoz ATE IREKIETARA

apirilak 17 (larunbata), 11etan

Osasun-baldintzak bermatzeko aforo mugatuak egongo dira. EMAN IZENA!

94 616 90 02 info@leartik.eus www.leartik.eus

Gure Batxilergoa



Salesen komentua Durangoko Galtzaretza kalean dago.

Kontseilu Sozialistako kideak Salesen komentutik "kanporatu" dituzte

Joan zen barikuan elkarretartzera deitu zuten gertatutakoa "salatzeko"

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangaldeko Kontseilu Sozialistako kideek Durangoko Galtzaretza kalean dagoen Salesen eraikina okupatu zuten joan zen barikuan. Ertzaintzak azaldu zuenez, 11:00 inguruan bertaratu ziren. Barruan zeuden pertsonak "euren borondatez" irten zutela eta identifikatu egin zituztela diote Ertzaintzako iturriek. Kontseilu Sozialistako kideek azaldu dutenez, oster, "kanpoan zegoen presentzia polizialaren aurrean" irtetea erabaki zuten. "Gure interpretazioa da desalojo bat

izan dela. Ondorioak larriak izan zitezkeela ikusita, irtetea erabaki genuen", adierazi dute. Kontseilu Sozialistako kideek elkarretartzera deitu zuten "desalojoa salatzeko". Andra Marian.

Eraikina okupatu duen kolektiboak Sekulamendi Zentro Sozialista sortu gura zuen

Eraikina okupatu zuen kolektiboak Sekulamendi Zentro Sozialista sortu gura zuen Salesen komentuan. "Langile klasearen interesen alde lan egiteko asmoz, hau da, gehiengo sozialaren interesen alde lan egiteko bitarteko lez", azaldu du Kontseilu Sozialistak bere sare sozialetan.

Salesen komentua izandako eraikina hutsik dago 2003tik. Hainbat gaztek okupatu egin zuten 2013an. Okupazio horrek hilabete eta erdi iraun zuen, epaileak husterko agindua eman zuen arte.

Durangaldea asteen

Cycle Friendly Employer ziurtagiria Durangaldeko 20 erakunderentzat

Durangaldea | Eskualdeko 20 bat eragilek ziurtagiria eskuratu zuten astelehenean Iurretako Ibarretxe kultur etxean, bizikletaren eguneroko erabilera sustatzen hasteagaitik. Besteak beste, eskualdeko udalek, ikastetxeek eta lantegi batzuek eskuratu dute ziurtagiria.

Stop Bide Indarkeriari elkarteak argazki lehiaketa abiatu du

Durangaldea | 'Ikusi eta ikasi' argazki lehiaketan, 16 urtetik gorako denek parte hartu dezakete. Parte hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi aurkeztu ahalko ditu apirilaren 15a baino lehen. Argazkiak stopbideindarkeria@stopviolenciavial.eus helbidera bidali beharko dira. Bide-segurtasunari buruz hausnarketa gizartera zabaltzea eta kontzientziazioan eragitea dira helburuak.



Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Iurretako pediatria zerbitzua

Gure umeek, beste guztiek bezala, pediatria zerbitzu ona merezi dute. Orain arte, halakoa izan da Iurretako osasun zentroan eskaini izan den pediatria zerbitzua, ez dugu kexatzeko motiborik izan; baina, COVID-19 sasoiari, guztiz aldatu da kontu hori.

Azken aspaldian, gure umeek ez dute izan herrian medikuak aurrez aurre artatzeko aukerarik. Izan ere, Iurretako pediatria jardun erdiz ari da lanean eta kontsulta guztiak telefonoz egiten ditu; ez du umeirik aurrez aurreko kontsultetan artatzen. Hori dela-eta, edozein arazo tarteko, osasun zentrorra deitu eta hitzordua eskatu dugunean, umeari argazkiak atera eta emailez bidaltzeko eskatu digute. Pediatrak, beraz, gurasook telefonoz emandako azalpenen eta emailez jasotako argazkien bidez egiten ditu diagnostikoak. Era berean, telefonoz jakinarazten digu umeak zer duen eta zein tratamendu hartu behar duen ere.

Badakigu telefono bidezko kontsultak ugartu egin direla COVID-19 tarteko, eta uste dugu zenbait kasutan egokiak izan daitezkeela; esate baterako, pazienteen jarraipenak egiteko. Diagnostikoak egiteko, oster, sistema hori motz geratzen da. Izan ere, taxuzko diagnostikoak egiteko gaixoa ikusi egin behar da, aztertu. Ezinbestekoa da aurrez aurreko kontsultak izatea diagnostikoak behar bezala egingo badira eta behar bezalako zerbitzua eskaini nahi bada. Bada, gure umeek ez dute medikuak ikusteko aukerarik, medikuak aztertzei aukerarik, behar bezalako diagnostikoak izateko aukerarik. Ez dute osasun arreta onik. Gure umeek orain daukatena baino osasun arreta hobea merezi dutela uste dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da aurrez aurreko zerbitzua izatea.

Egoera salatzeko modukoa dela uste dugu eta zerbitzu horren erabiltzaile guztioi dagokigula erreklamazioa egitea. Hori dela-eta, Iurretako osasun zentroko pediatria zerbitzua erabiltzen duzuen guztioi eskatzen dizuegu Osakidetzan erreklamazioa aurkeztea.

Ziortza Aldekoa-Otalora, Maiztegi Herri Eskolako Guraso Elkartearen izenean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA - Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

MIÑAN 1^o
Ametz Arzallus & Ibahima Balde (Susa)

BIZIA MIN 2^o
Jon Ander Urkiaga (Luces de Gálipo)

TURISTA KLASEA 3^o
Kattalin Miner (Susa)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea








Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BURUARI KLIK!




BIKIAK

Beheko gurpil hauetatik guztietatik bi berdinak dira. Zeintzuk?



DOMINOA

Marraztu dagokion
irudia lauki zurietan.



TOPATU ITZAZU


Beheko irudian topatu objektu hauek.

Zenbat ume ikusten dituzu parkean jolasean?




NON JAUSI DA?

Aztarnak ikusita, zein zenbakitan jausi da harria?



Zelan deitzen da joko hau?





IKUSI MAKUSI

Zein animalia ikusten dituzu eta zein ez?



PUZZLEA

Zati hauetatik guztietatik denak ez dira egokiak. Zeintzuk bai?



Lehoia

Elefantea

Hipopotamoa

Ostruka

Tximinoa

Sugea

Zebra


Jirafa

Errinozeroa



LABIRINTOA

Lagundu erle bakoitzari bere loratxora heltzen.



MATEMATIKA

Egin alboko eragiketa hauek beheko loreek duten zenbakia kontuan hartuta.

$$\text{Purple flower} = 4$$

$$\text{Pink flower} = 2$$

$$\text{Yellow flower} = 6$$

$$\text{Red flower} = 3$$


$$\text{Purple flower} + \text{Pink flower} - \text{Red flower} = \boxed{}$$

$$\text{Yellow flower} - \text{Red flower} + \text{Pink flower} = \boxed{}$$

$$\text{Purple flower} + \text{Yellow flower} / \text{Pink flower} = \boxed{}$$



merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



'Orbita'

DANTZA BERRIZ :: Martxoak 27

Dantza ikuskizuna Zen del Sur konpainiaren eskutik

Objektu fisiko batek beste baten inguruan deskribatzen duen bidea, indar zentral baten eraginpean. Carlos Lópezen eta Noemi Parejaren arteko hartu-emanaren irudikatzen du fenomeno horrek. Gaur egungo mugimendu-lengoai desberdinak,

zirku elementuak eta zuzeneko musika erabiliz, elkarri eragiten dioten artista polifazetiko bi izango ditugu oholtzan, euren sustraian erakarpen grabitatorioaren menpe jardungo dutenak: Cadiz, itsasoa eta artea. Kultur Etxean, 19:00etan.

Martxoaren 26an

ABADIÑO antzerkia
'Fotos, hormonas y lexatin' (Tiferencia Antzerki feminista), 19:00etan, Errota Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia
'Pinocchio' (Gorakada konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia
'Atzerrian lurra garratz' (Artedrama & Huts Teatro), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA narrazioa
Helduentzako ahozko narrazioa: 'Emeen kemen' (Maider Alcelay), 19:00etan, Herri Bibliotekan.

ZORNOTZA musika
Guda dantza, 19:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan. Gauero + ekimenaren eskutik.

ZORNOTZA antzerkia
'El patio de mi casa' (Pez Limbo), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 27an

BERRIZ ipuinak
'Horiek bai benetako heroiak' (Ameli eta Irati ipuin kontalariak), 12:15ean, Kultur Etxean.

OTXANDIO dokumentala
Mendi Tour. Mendi Filmeko onena: 'Charge2', 'Harda-TheTough', 'A Plea For Refuge', 'Out of the Blue' eta 'Urmuga' filmak. Mainondoko gimnasioan, 19:00etan.

ELORRIO berbaldia
Txertoei buruzko berbaldia, 11:30ean, Arriola antzokian. Bizipoza elkarteak antolatuta. Hizlaria: Xavier Uriarte, mediku espezialista errehabilitazioan, osasun publikoan eta medikuntza naturistan. Izena emateko: elkartebizipoza@gmail.com helbidean Sarrera, borondatea.

Martxoaren 29ra arte

ZALDIBAR dokumentala
Mendi Tour. Mendi Filmeko onena: 'Aterpean Ateri', 'Metanoia', 'Carie' eta 'L'Escalade Libérée' dokumentalak. Liburutegi zaharrean, 18:30ean.

Martxoaren 31ra arte

ZORNOTZA erakusketa
'Emakume anitzen eguneroko borrokak', argazki erakusketa, Zelaieta zentroan. Lagunartean elkartea.

Apirilaren 6an

IURRETA ipuinak
Sorgiña Txirulina, 11:30ean, Ibarretxe Kultur Etxean. Aurretik sarrera hartu behar da. Sei urtetik gorako umei zuzenduta.

Apirilaren 7an

IURRETA magia
Txoborro Magoa, 11:30ean, Ibarretxe Kultur Etxean. Aurretik sarrera hartu behar da. Sei urtetik gorako umei zuzenduta.

Apirilaren 8an

IURRETA ikuskizuna
'Bidaibitzen', 11:30ean, Ibarretxe Kultur Etxean. Aurretik sarrera hartu behar da. Sei urtetik gorako umei zuzenduta.

Apirilaren 9an

IURRETA ikuskizuna
'Azalerako ipuinak', 11:30ean, Ibarretxe Kultur Etxean. Aurretik sarrera hartu behar da. Bost urtera arteko umei zuzenduta.

Apirilaren 10ean

DURANGO antzerkia
'Lloviendo ranas' (Ados Teatro), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Zinema

:: Abadiño ERROTA KULTUR ETXEA

• **Las niñas**
zapatua 27: 19:00
• **Kranston ikastetxea: munstroen eskola**
domeka 28: 17:00

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La niñas**
barikua 26: 19:00
domeka 28: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Nomadland**
barikua 26: 17:00/19:15
zapatua 27: 17:00/19:15
domeka 28: 17:00/19:15
astelehena 29: 17:00/19:15
martitena 30: 19:15
eguztana 31: 19:15
• **Monster Hunter**
barikua 26: 17:00/19:15
zapatua 27: 17:00/19:15
domeka 28: 17:00/19:15
astelehena 29: 17:00/19:15
martitena 30: 19:15
eguztana 31: 19:15



• **Dardara**
barikua 26: 19:15
zapatua 27: 19:15
domeka 28: 19:15
astelehena 29: 19:15
martitena 30: 19:15
eguztana 31: 19:15
• **Tom y Jerry**
barikua 26: 17:00
zapatua 27: 17:00
domeka 28: 17:00
astelehena 29: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **The Glorias**
zapatua 27: 19:00
domeka 28: 19:00
astelehena 29: 19:00
• **Zapatos rojos y los siete trolls**
domeka 28: 16:00

:: Zornotza ARETOA


• **Non dago Mikel?**
zapatua 27: 19:00
• **I am woman**
domeka 28: 19:00
astelehena 29: 19:00
• **Kranston ikastetxea: Munstroen eskola**
zapatua 27: 12:00
domeka 28: 12:00

Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. KONTSULTATU 94 621 79 02 telefonoan.

Karrika antzerki taldeak aro berri bati ekingo dio 'Karrikan' lanaren estreinuagaz Durangon

Apirilaren 4an, Karrikak 'Karrikan' obraren emanaldi bi eskainiko ditu Topaklown jaialdiaren barruan; Txotxe hil ostean, oholtzara igoko diren lehenengo aldia da



'Baina, eta tokatu zaigun kutxari egokitzerik ez badago?'

ANTZERKIGINTZA • A.M. / M.Z.

"Azkenean bai", esan dute barre artean antzezleek, eskuagaz mahaia ikutu bitartean, oraindino guztiz sinistu barik edo. Izan ere, Karrika antzerki taldeko kideek hiru bider atzeratu behar izan dute iazko udaberrian estreinatzea zuten *Karrikan* antzezlan. Urtebetean, hainbat egoera kudeatu behar izan dute, gainera; motibazio edo tentsio puntuei eustea gatx egin zaiela nabarmendu dute. "Asko kostatu zaigu hainbeste etenaldiren ostean berriro martxan hastea. Berreskuratze lan bat egin behar

izan dugu, baina ez hori bakarrik, aurrelanketa handia egin behar izan dugu gozatze mailara heldu ahal izateko", azaldu du Uxuri Gallastegi antzezleak. Gallastegigaz batera, Maite Lopez, Naiara Lopez, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Mikel Uribebarrea, Maialen Magunagoitia eta Eider Chavez igoko dira oholtzara gainera. Hasieran, Endika Zamalloak ere parte hartu behar zuen antzezlanean.

Zortzi lagun plaza batean, kaxa bat buruan dutela da eszenaratzeko. "Bakoitzari, norbanako lez, kutxa bat egokitu zaigu, eta

obran norberak kutxa horretan egokitu zaionera egokitzeko duen gogoari buruzko hausnarketa bat da", azaldu du Gorka Madrazok. Gaiari eusteko moduan ere igarri dute aldaketa Karrikakoek. "Beharrezkoa genuen geure artean jolasteko gogo hori berreskuratzea, antzerkiaz gozatzeko gogoia edukitzea berriro", gehitu du Maite Lopezek.

Komedia 'Karrikatua'

Taulara itzultzeko gogoz ez ezik, arduragaz ere badaude *Karrikalariak*. 2018ko otsailean Jose Martin Urrutia 'Txotxe', Karrika-

ko *alma materra*, zendu zenetik, lehenengoz igoko dira oholtzara; Txotxeren parte hartzerik bako lehenengo lana izango da. "Txotxerena antzerki soziala eta aldarrikatzailea zen, eta hemen ere badago hausnarketarako tokia, baina beste ikuspuntu batetik kontatu gura izan dugu istorioa", azaldu du Eider Chavesek.

Txotxeren lekukoa Patricia Urrutiak hartu du lan honetarako, eta gustura daude elkarrengandik bideagaz, are gehiago testuingurua kontuan hartuta. "Gure filosofia ezagutzen zuen norbait behar genuen. Karrikak

bere identitate propioa du, talde amateurra gara, eta geure egiteko modua dugu", esan dute. Hogei urteko ibilbidearen ondoren, Karrikak etiketa propioa garatu dutelakoan daude taldekideak, eta horrek presio puntu bat sartzen die estreinura begira. "Lan hau desberdina izango da, gauza askogaitik. Zeretik haste moduko bat izan da neurri batean", azaldu du Naiara Lopezek. Txotxek jende asko ezagutzen zuen eta babes hori heldu zaiela ere azpimarratu gura izan dute.

Karrikak emanaldi bi eskainiko ditu apirilaren 4an; 17:30ean bata eta 19:30ean bestea

Topaklownen itzulera

Karrikak Topaklown jaialdi entzutetsuan estreinatuko du *Karrikan*. "Guretzat aukera itzela da, Topaklownen bestela ere parte hartu izan dugulako", azaldu dute. Hain zuzen ere, Patricia Urrutia Topaklowneko edizioetako batean ezagutu zuten hainbat karrikalarik.

Iazko edizioa bertan behera geratu eta gero, Topaklown jaialdia eraldatuta helduko da aurtengoan. Hamalau emanaldi egongo dira, San Agustinen eta Landako Gunean, zazpi talderen eskutik. "Orain arte, ikuskizunetaz gainera, ikastaroak ere bagenituen eta horrek sortzen duen giroa galduko dugu. Baina ez genuen Durangora barrea ekartzeko aukera galdugura", azaldu zuen Gorka Ganso antolatzaileak aurkezpen egunean. Egitarau osoa ANBOToren webgunean dago ikusgai.

Apirilaren 4an, Karrika antzerki taldeak *Karrikan* antzezlanaren emanaldi bi eskainiko ditu; 17:30ean lehenengoa eta 19:30ean bigarrena.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

AZALERAKO IPUINAK
0-5 urteko haurrentzat

APIRILAK 9, 11:30

Sarrera gonbidapenarekin,
Pase hau betetzen bada,
12:30etan beste bat egongo da

Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Artedramaren 'Atzerrian lurra garratz' Arriolan eskainiko dute, asteburuan

Barikuan eskainiko dute antzezlana, 19:00etan; apirilaren 16an, Zornotzan eskainiko dute



Ander Lipus eta Laura Penagos.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Euskal Herrian etorkin izandako kolonbiarraren bizipenetatik abiatzen da *Atzerrian lurra garratz* antzezlana. Hain zuzen ere, Kolonbiakoa da Aurora Mora protagonista [Laura Penagosek antzeztua]. Kolonia eta familia atzean utzi, eta Euskal Herrira dator Aurora; inoiz sorterrira bueltatu barik, joan ala ez erabaki beharko du hilberri zaion ama ehorztera. Morari Nayeli amona agertuko zaio hildakoen erresumatik; Musika

komunitate indigenako kidea zen amona, eta txibtxa hizkuntzan mintzatuko zaio Aurorari. Herria utzi zuenetik, bera ere ez zen itzuli hara. Laura Penagosegaz batera, Ander Lipus antzerkilariak igoko du oholta gainera; Lipus hainbat pertsonaiaren azalean sartuko da: Kepa Auroraren mutil-lagun euskaldunarenean, Euxebio Keparen aita alzheimerdunarenean, eta Auroraren ahizparen, amaren eta Nayeli amonaren azalean ere. Amancay Gaztañagak zuzendu du

obra. Miren Amuriza bertsolari berriztarrak idazketagaz lagundu du.

Aurora Moraren moduan, Laura Penagos ere kolonbiarra da. Euskaraz antzeztuko duen lehenengo obra du *Atzerrian lurra garratz*.

Artedrama eta Huts konpainien lan berria otsailean estreinatu zuten, eta ordutik Berrizko Kultur Etxetik eta Durangoko San Agustin kulturgunetik igaro da. Apirilaren 16an Zornotza Aretoan eskainiko dute emanaldia.

Bartolome Ertzillako sei piano ikaslek saria jaso dute

Hirugarren urtea da Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioko ikasleak lehiaketara aurkezten direna

MUSIKA • A.M.

Oier Callejo, Jone Berrizbeitia, Kelmene Abaitua, Lide Salaberria, Eider Urigoitia eta Aiala Irurtia pianista gazteek Andoaingo Udalak eta Deiar Piano Jaialdia elkarteak urtero banatzen duten saria jaso dute. Mikel Nuñez eta Maria Azurmendi irakasleen ikasleak dira seiak. Andoaingo Piano Jaialdiaren hamaseigarren edizioa izan da aurtengoa, eta urteotan jaialdiak sona handia lortu du pianozaleen komunitatean. 18 urtetik beherako ikasleentzako lehiaketa bat da. Callejok, Berrizbeitiak, Abaituak, Salaberriak, Urigoitiak eta Irur-

tiak 11 eta 15 urte bitartean dituzte, eta urrezko, zilarrezko eta brontzezko sariak jaso dituzte. Jaialdia otsailaren 27an eta 28an izan zen, Andoaingo Bastero kulturgunean. "Jaialdiak oso harrera ona izan du piano ikasleen partetik", azaldu dute Bartolome Ertzillatik. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 270 ikasleak parte hartu dute lehiaketan; Bartolome Ertzillako ikasleek parte hartzen duten hirugarren aldia da. "Beste pianista gazte batzuk ezagutzeko eta publiko aurrean bakarka lan egiteko aukera ona da", adierazi dute Bartolome Ertzillako ikasleek.




Bartolome Ertzillako ikasleak.

Gai librea

Aginte arrazionalista

"Aske izatera kondenatuak' gaudela esaten zuen J.P. Sartre filosofo existenzialistak". Baieztape gordin eta itxuraz kontraesankor horrekin, pentsalari frantsesak gizakiak bere izatearen gainean duen erantzukizuna agerian utzi nahi izan zuen nolabait. Hortaz, ingurua irauli nahi duen pertsona orok erabaki kontzientea hartu behar du inguru hori ulertzeko, eta, beraz, ezagutza prozesu kritiko eta zorrotz bat aurrera eramateko.

Hari horretatik tiraka, norbanako mailan, eskubide bat ez zik, ezagutza prozesua betebeharrak bezala ulertu behar da, saihestu ezin daitekeen bizitzarekiko konpromisoa alegia. Ezagutza barik, izaera kritikoa hitzontzikeria hutsala bilakatzen baita. Hala, ezjakintasuna, ezagutza falta baino, ezagutza era sistematiko ba-



Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria

Ingurua irauli nahi duen pertsona orok erabaki kontzientea hartu behar du inguru hori ulertzeko

Maila pertsonaletik haratago, ezjakintasuna kontrol eta menpekotasun mekanismo lez kristaltzen da

tean lortzeari uko egiten dion jarrera litzateke.

Beste aldetik, maila pertsonaletik haratago, ezjakintasuna kontrol eta menpekotasun mekanismo bat bezala kristaltzen da. Kontestu horretan, ezjakintasunaren ekoizpen masiboa, gizartea lokartzeko eta periferian mantentzeko eliteen berariazko dinamika bezala ulertzea premiazkoa da. Adibide modura, ebidentziak ezeztatzeko erpin guztietatik zuzendutako (des)informazio kanpainak edota ezagutzaren offshorizazio mekanismoak (lurrazpian eta isilean mantendu nahi den ezagutza bolumena) nabarmendu daitezke.

Horrela, hiritar moduan dugun aginte arrazionalistari uko egitea, emantzipazio pertsonal eta kolektiboari uko egitea litzateke, eta, azken finean, zergatik ez, bizitza duinari bizkarra ematea.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Ander Urrutxurtu (Durango 1998) athleticzalea eta klubeko bazkidea da, eta Manu Carrasco (Ondarroa, Durangon bizi da, 1968), ostera, realzalea eta Durangalde Beti Realak lagunarteko presidentea. Euren klubek Errege Kopa irabazteagaz amesten dute, baina, batera zein bestera, euskal futbolaren jaia ere izango dela azpimarratu dute.

Astebete falta da finalerako. Igartzen duzue gorputzean egun handia gertu dagoela?

Ander Urrutxurtu: Badut urduritasun puntu bat, bai. Baina ez da Athletic beheko postuetan egongo balitz sentituko nuen bera. Final bat da, titulu baten atarian gaude eta ilusia nagusitzen zaio urduritasunari.

Manu Carrasco: Eguna heltzeko gogoz nago. Kontuan hartu final hau orain urtebete jokatu behar zela eta itxaronaldia luze egiten da.

Zuen inguruan edo kalean, igartzen duzue girorik?

A.U.: Bai, pike hori igartzen da, baina pike sanoak izan behar du. Horrela bada, saltsa ematen dio finalari.

M.C.: Bai, pikea badago, baina orain arte behintzat dena pike sanoa izan da. Bi zalegoen partetik. Nik 16 urte daramatzat Durangon bizitzen eta sekula ere ez dut arazorik izan.

Euskal talde bi finalean. Ez da askotan ikusi den kontua.

A.U.: Bigarren aldia izango da. Lehenengo 1927an izan zen, Real Union eta Arenas taldeen artean.

M.C.: Euskal futbolaren jai bat izango da. Pena bakarria da Sevilla euskaltzalez bete ezina. Ikusgarria izango litzateke. Horrelako final bat errepikatzea oso zaila da. Behar bada ez da beste urte askoan gertatuko.

A.U.: Bai, ados nago. Euskal jai bat izango da eta hori ere azpimarratu beharra dago. Eta, bai, pena da finalean zalerik ez izatea, zeren eta Sevilla euskaldunetz beteta ikustea oso polita izango zen.

Finalera heldu zirenean, bazenuten Sevillara joateko asmorik?

M.C.: Banuen joateko asmoa, bai. Oraindino ez neukan sarrerarik, baina Sevillan senitartekoak ditut, eta lortuko nuen baten bat.

A.U.: Nik ere ez neukan sarrerarik,

“Pena bakarria da Sevilla euskaltzalez bete ezina; ikusgarria izango litzateke”

Astebete barru, Athleticen eta Realak lehenengoz neurtuko dituzte indarrak Errege Kopako final batean. Klub bietako zaleak partidu erabakigarria heldu dadin desiratzen daude



baina aita eta biok Athleticen bazkideak gara 2014tik, San Mames zelai berria inauguratu zenetik, eta sarreraren zozketaren zain geunden.

Partidua etxetik jarraitu beharko da. Zelan atonduko zarete finalerako?

A.U.: Athleticen kamiseta jantziko dut eta balkoia kolore zurigorriekin apaindu dugu.

M.C.: Realaren kamisetarik ez da faltako. Xabi Prietok sinatutako bat dut, gainera. Eta tela txuri-urdina prest dut balkoian ipintzeko.

Mugikorra eskuan izango duzue finala lagunekin komentatzeko?

A.U.: Bai, jakina. Unibertsitateko lagun asko realzaleak dira. Oraingoz whatsapp talde hori nahiko lasai dago, baina eguna hurreratzen den neurrian seguru kontua berotzen joango dena. Saltsa egongo da.

M.C.: Ni lau whatsapp taldeetan na-

go. Durangaldeko lagunartekoan, lagunenean, eta estatuko zein nazioarteko lagunartekoenean. Baina saltsarik gehien lehenengo bietan egongo da.

Zuen etxeetan athleticzaleak eta realzaleak dira denak?

A.U.: Final honetarako bai. Kontua da aitita Bartzelonazalea dela, eta apirilaren 17ko partiduan haien alde egongo da. Baina oraingoa Athleticzale izango dugu.

M.C.: Nik hiru seme ditut: bi realzaleak eta bestea, seme nagusia, athleticzalea. Ez da futbolzale amorratua, baina bai athleticzalea. Ondo konponduko gara. Gurean dugun abantaila da, gutxienez bat pozik egongo dela finala amaitzen denean (barreak).

Sinatuko zenukete final hau Realak irabaztea eta hurrengo Athleticen?

A.U.: Realzaleek horixe esaten dute, baina, gero, athleticzaleek esaten didate Realaren kontrakoa dela irabazi beharreko finala. Ezin daiteke aurreikusitako. Athleticen kasuan, lehenengo finala galtzeak presioa eragin diezake jokalariei bigarren finalera begira. Uste dut horixe gertatu zela 2012an, Atletico Madrilen kontra Europa Leagueko finala galdu eta gutxira Bartzelonaren kontra Errege Kopako finala jokatu zutenean.

M.C.: Nire kasuan sinatuko nuke, jakina, final batean gaudelako. Baina nik gura dudana da apirilaren 3koa irabaztea. Realak ez du jokatuko Bartzelonaren kontrakoa.

Zein talde heltzen da sasoi hobean?

M.C.: Ez dakit, ba. Azken hile bietan talde biak apur bat irregularrak izan dira eta gorabeherak izan

dituzte. Nire ustez, inkontzienteki bada ere, talde bietan Sevillako finala dute buruan azken hileetan.

A.U.: Nik ere ez dakit. Derbietan ez dagoela faboritorik uste dut. Ligan Athletic sailkapenean aurretik egon den batzuetan Realak irabazi du, eta alderantziz ere gertatu da. Kontua erdi eta erdi dagoela esango nuke.

Talde bietan zer egin behar dute ondo finala irabazteko?

M.C.: Realak baloiaren jabetza izaten asmatu behar du. Kalitate gehiagoko jokalariek dituela uste dut. Hori lortzen badu, Athleticen gatz izango du arriskua sortzea.

A.U.: Athleticen atzean sendo eta serio jokatu behar du. Ondo kokatuta egon behar da eta Realaren pataldiak aprobetxatzen asmatu behar du. Baloiak toki onean errekuperatzen baditu, aurrean aukerak sortu ditzakeela uste dut.

Talde biak irregular dabilta azken aldian. Nire ustez, inkontzienteki bada ere, talde bietan finala dute buruan

MANU CARRASCO

Zer duzue gurago: gol askoren aldeagaz ala azken minutuko gol batezagaz irabaztea?

A.U.: Gurago dut gol askoren aldeagaz irabaztea, horrela ez dut azken arte sufrutuko eta. Edozelan ere, Athleticen azken urteetan Kopan izan duen bidea kontrakoa da. Kanporaketa asko penaltietan edo luzapenean erabaki dira.

M.C.: Ados nago. Atsedendian 3-0 irabazten bazoaz, beste lasaitasun batezagaz jarraitu dezakezu partidua. Onartu behar dut azken minutuko gola itzela dela, poz leherketa bat, baina aukeran gurago nuke lasaitasunagaz bizi.

Esan emaitza bat eta golegileak.

A.U.: Athleticen alde, 2-0. Golegileak: Raul García eta Alex Berenguer.

M.C.: Realaren alde, 3-1. Alexander Isac-ek bi sartuko ditu eta Mikel Oiarzabalek bat. Athleticena, Berenguerrek.

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Liburudonda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MAKALLAU saltsan
saltzan KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao koinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

Mauri Imazek urte erdi darama Urkiola egunero bizikletan igotzen

365 bider igo gura du segidan. Hezur-muineko emaille berriak bilatzea du helburu

ELKARTASUNA • JOSEBA DERTEANO

Urte erdi joan da Mauri Imazek "Tourkiola 365" erronka martxan ipini zuenetik. Iazko urri hasieratik, egunero-egunero igotzen du Urkiola bizikletan, eta horrela jarraituko du 365 bider igo arte. He-

zur-muineko emaille izateak duen garrantzia lau haizetara zabaltzea da bere helburua.

Denbora honetan bidelagunak izan ditu igoeretan, aurpegi ezagunak batzuetan: behin Markel Irizar txirrindulari ohiaren laguntza

izan zuen, eta beste behin Andeka Gorrotxategi tenorearen kantu artean heldu zen Urkiola gainera. Baina, orokorrean, lagundu dioten denei esker oneko dago. "Martitzenean, autoan zihoan bat Urkiola gainean geratu zen ni animatzeko. Horrelako detaileek indarra ematen didate", azaldu du.

Negua joan da eta egun batzuetan "oso gogorra" egin zaiola onartu du; elurra egin duenetan baino gehiago, egun euritsu eta hotzetan.

Medulo izeneko autoa

Cafés Baquek auto bat utzi dio, Medulo bataiatu duena, eta ekimeneko pegatinekin jantzi du. Batzuetan bidelagun izaten du Urkiolan gora, eta beste osagai bat da mezua zabaltzeko. Gero, normalean, autoa Durangoko anbulatorio zaharraren aurrean egoten da aparkatuta. Kokaleku hori ez da kasualitatea. Galdakaoko edo Gurutzetako ospitaleetan lez, Durangon ere hezur-muina emateko gune bat ipintzeak asko lagunduko lukeela uste du. "Izan ere, Durango logistikoki ondo kokatuta dago, hiru hiriburuen erdian. Esaterako, Durangon astean behin hezur-muina emateko aukera eskaintzea ona litzatekeela uste dut", azaldu du.



Goizeko lehenengo orduan igotzen du Urkiola egunero-egunero.

Saskibaloia munduak agur esan dio Juanjo Morenori

Martitzenean hil zen, 82 urte gaz. Jesuita, irakaslea eta saskibaloia zale sutsua izan zen. Bere lanak lorratz sakona utzi du Tabirako klubean zein Bizkaiko saskibaloian

SASKIBALOA • J.D.

Durangoko Tabirako klubaren ibilbidea eta nortasuna ezin daitzeku ulertu Juanjo Morenoren ekarpenik barik. "Gure klubeko 'alma mater'-a izan da. Asko eman digu, eta maila askotan. Jende askorentzat erreferente handia izan dena joan zaigu", adierazi du Ina Mendibek, Tabirako klubeko presidentea.

Morenok saskibaloia alde eginiko lana ez zen Tabirakora bakarrik mugatu, eta lorratza utzi

du beste hainbat tokitan ere. "Gure saskibaloia historiaren zati garrantzitsu bat joan zaigu", adierazi du Euskadiko Saskibaloia Federazioak sare sozialetan. 2010ean, Bizkaia Basket fundazioak Saski Saria eman zion Morenori.

Bestalde, Jesuiten Etxea etorkinentzako harrera zentroko bultzatzaile aitzindaria ere izan zen Moreno. Urteetan eginiko lana aintzateste, Gerediaga Elkarteak Teila saria eman zion 2015ean.



Juanjo Moreno 2015ean, Gerediaga Elkarteak emaniko Teila saria jasotzen. TXELU ANGOITIA

Jokaldia

Atzelariak fokupean

Orain gutxi, hauxe galdetu nion lagun bati: "Zein da gaurko partidua?". Lagunak oso gutxitan entzun duduan moduan erantzun zidan: "Zabaleta Albisuren aurka". Klik egin zidan buruak. Izan ere, binakako partiduak aipatzeko soilik aurrelariak izendatzera ohituta egonagatik, atzelarien parte-hartzea garrantzirik gabeko zerbait balitz bezala, atzekoen izenak entzuteak harritu ninduen; orduan konturatu nintzen pare bat hamarkada pasatu direla atzelariak protagonismoa galdu zutenetik. Barriola, eta batez ere Beloki izan ziren azkeneko liderrak.

Aurtengo binakakoan atzelariak aurrelarien gainetik nabarmentzen ari dira; eta denen artean nagusi, zalantzarik gabe, Zabaleta. Beloki bera ere entzun dugu esaten etxarrendarrak berak baino



Iñaki Iza Zarazua
Pilota

"Aurtengo binakakoan atzelariak nabarmentzen ari dira eta denen artean nagusi, zalantza barik, Zabaleta"

"Beloki entzun dugu esaten etxarrendarrak berak baino alde handiagoak markatzen dituela; eta hori esatea asko esatea da"

alde handiagoak markatzen dituela; eta hori esatea asko esatea da. Pena da, ordea, Zabaletaren joko uholdea pilotalekutik ezin gozatzea, ikaragarria baita pilotari ematen dion abiadura.

Albisu izan da Zabaleta estu hartu duen atzelari bakarra; birritan, gainera. Ataundarra ezin hobeto lehiatzen ari

da eta inor gutxi espero zuen debutari batekin bigarren postuagatik borrokan egongo zenik bi jardunaldiren faltan.

Mariezcurrera ere ezusteko positiboa izaten ari da. Lau hilabete profesionaletatik kanpo eginda, presio handiko erronkari ezin hobeto erantzuten ari zaio; orain gutxi arte txapelketako bigarren pilotaririk onena izateraino. Azken asteotan behera egin du eskuko arazoengatik.

Baten batek ez du begi onez ikusiko nabarmentzen ari diren pilotarien artean Rezusta aipatzea, ez baita bere txapelketarik onena jokatzeko ari. Baina bikotean duen pisua argia da, soilik Beñat ondo dagoenean funtzionatzen baitu.

Atzelariak ere ikuskizuna eman dezaketela ikusten ari gara. Zorte txarrekoak, hauek, arreta behingoagatik berenganatu eta hain gutxitan jaso eta hainbeste mezezi dituzten txaloak ezin entzuteagatik.

DURANGALDE

Benita Uribarrena parkea

Durangoko Udalak Benita Uribarrena borrokalari antifaxistaren izena ipini zion Arte eta Historia Museo osteko parkeari. Urte askoan itxita egoniko berdegunea atondu, eta izen horregaz inauguratu zuten 2017ko urriaren 6an.



BIZKAIKO TXOKOAK ?

Urkiolamendi (1.011 m.)

Urkiolamendi edo Urkiolagirre mendia Urkiolako aparkalekutik gora joanda dago. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako parajeen ikuspuntu ederra dago bertatik. Tontorrean, Anbotoko mendilerroari buruzko mahai informatiboa dago.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO

APARTAMENTUA: Logela, komuna, sukaldea, egongela handia eta eskegitokia. Ganbara. 2 kobrentzako garajea

170.000€ C.E.E=E



DURANGO 3 logela

DURANGO: 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Garaje itxia aukeran. Bizitzera sartzeko moduan.

150.000€ C.E.E=F negoziagarria



DURANGO 5 logela

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran.

350.000 € C.E.E= F



ABADIÑO 3 logela

MATIENA: ESTREINATZEKO. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea eta trastelekua.

210.000 € C.E.E=F



DURANGO 2 logela

BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua.

125.000 € C.E.E=G



DURANGO 3 logela

SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Eguzkitsua. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du.

226.000€ C.E.E=F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena. 4 logela. Pisu zabala. Sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berrizatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmodurangesado.com



DURANGO 92,71 m²

MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.

315.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA 3 logela 68,62 m²

ZUBIAURRE: 3 logela, egongela, sukalde jantzita eta komuna. Balkoia. Erdia kanpora begira. Igogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.

146.000 € C.E.E: Bidean



MUNTSARATZ 81,7 m² 3 logela

ARLOZABAL: 81,7 m2 (erabilgarri). Saloia, sukalde jantzita, 3 logela, bi komun eta balkoia. Ganbara 10 m2 (erabilgarri). Kanpo aldera begira/ Argitsua (Iparralde). KONTSERBAZIO EGOERA ONEAN. IGOGAILUA.

189.000 € C.E.E:E.



DURANGO 65 m²

INTXAURONDO: 65 m2 (erabilgarri) saloia, sukalde jantzita, 2 logela (bi horma-armairu) eta komun bat. Erdia kanpora begira. IT pasatuta. Leku ezin hobean. Etxebizitza garajearekin hartzeko aukera.

165.000€ C.E.E:E.



MATIENA 3 logela 69 m²

TRAÑAETXOSTE: 69 m2 (erabilgarri). Saloia, sukalde jantzita (berria), 3 logela eta komuna. Kanpo aldera begira (Iparralde/Mendebalde). Leku onean. Igogailua. KONTSERBAZIO EGOERA ONEAN.

180.000€ C.E.E: Bidean



DURANGO 2 logela 67 m²

SASIKOA: 67 m2. 2 logela, sukalde jantzita, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 28 m2-ko garajea eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua. AUKERA.

229.000 € C.E.E: E.

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera.

350.000 € / E.E.Z=F

ERRENTXU KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Igogailua. **185.000 € / E.E.E=E**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=E**

KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **130.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=G**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.

LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZO: Berreraikitzeo baserria. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **LEHEN 102.000 € / ORAIN 95.000€ / E.E.Z=E**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. **290.000 €**

//IURRETA

FAUSTE AUZO: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzorugaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 185.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lurzorugaz. **350.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

Eskelak jartzeko: 946 816 538
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 26 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

FARMAZIA MATIENA
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DOMEKA, 28 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 29 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 30 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 31 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 1 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko, bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Ainhoa!** Besarkadak eta muxuak debekatu dizkiguten garaiotan, 27. urtebetetze ederra opa dizugu. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak **Aiuur!** Martxoaren 21ean 8 urte egin zenituen. Egun politte pasau genuen. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **Gorka!** Durangotik Logroñora, jaso eizu besarkada estu-estu bat maite zaitugun guztion partez! Gaua beti argi!



Zorionak, hirukote, 9 eta 5 urte betetzearren. Muxutxu pila pila eta belarri tirakadak, familia osoaren partez.



Zorionak, **Iratxe!** 10 urte jada! Moxu potolo bat etxekoen partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 14° / 6° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 23° / 12° ☀️

EGUAZTENA 🌧️ 20° / 11° ☁️

DOMEKA 🌧️ 22° / 9° ☀️

MARTITZENA 🌧️ 21° / 11° ☁️

EGUENA 🌧️ 19° / 9° ☁️

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekootalora.com

Zubiaurte, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

“Oso bezero onak izan ditugu, eta asko; oso eskertuta gaude”

Martxoaren 16an 40 urte bete ziren Javier Elorriaga txirrindulari ohiak eta bere emazte Rosario Jauregik Elorriaga kirolak denda zabaldu zutela Abadiñon, Traña-Matiena auzoan



Javier eta Oskar Elorriaga

Elorriaga kirolak dendako jabeak

ABADIÑO

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriaga Kirolak bizikleta denda Abadiño tenpluetariko bat da bizikleta munduan. Orain 40 urte zabaldu zituen lehenengoz ateak dendak, 1981eko martxoaren 16an, eta, hurrezkerok, Elorriaga Jauregi familiako kideak lanean buru-belarri dabilta bizikleta artean.

1981eko martxoaren 16an zabaldu zituen ateak Elorriaga kirolak bizikleta dendak. Zelan gogoratzen duzu egun hura, Javier?

Javier Elorriaga: Inaugurazio jaia martxoaren 14an egin genuen; zapatua zen. Hainbat lagun batu ginen, eta txirrindulari nintzela egindako hainbat lagun txirrindulari ere bertaratu zen. Oso egun polita eta berezia izan zen guretzat.

Martxoaren 16an, astelehena, zabaldu genuen denda, eta emaztea eta biok hasi ginen lanean. Gogotsu eta ilusioz ekin genion bideari. Hasiera apur bat gogorra izan zen.

Zelan erabaki zenuten bizikleta denda zabaltzea?

J.E.: 1980an, txirrindulari profesional ibilbideari amaiera eman nion, Kataluniako lasterketekin. Behin denboraldia eta txirrindulari etapa hori amaituta, abenduaren 7an ezkondu egin ginen, eta horren ostean buru-belarri hasi ginen dendaren proiektuagaz. Egia esan, lehenago ere hasita geunden, lokala atontzen eta bestelako lan batzuk egiten.

Zelakoak izan dira bizikleta dendan bitzako momentuak?

J.E.: Oso momentu politak bizi izan ditugu, baita gogorrak ere. Batez ere, hasierakoak. Emazteak eta biok gogor lan egin genuen, gau eta egun askotan. Sarritan goizean goiz etortzen nintzen dendara, eta askotan gauerdira arte ere egoten nintzen bizikletak kon-

Emazteak eta biok gogor lan egin genuen bizikleta dendan, askotan gau eta egun egoten ginen bertan

pontzen, lanean atzerapenik ez izateko. Hala ere, hori ere lanaren parte da eta ez daukat inongo damurik. Oso pozik gaude, gure ibilbide osoan zehar jendeak izugarri lagundu digu eta. Gainera, oso bezero onak izan ditugu, eta asko. Oso eskertuta gaude.

Oskar Elorriaga: Eta gu gurasoek urte luzez egindako lan gogor horren fruituak jasotzen gabilta gaur egun.

Horrenbeste urtean, hainbat momentu gogor zein polit biziko zenuen, Javier. Baten bat aipatzeko-tan?

J.E.: Abadiñoako Txirrindulari Elkarteagaz batera, txirrindulari eskola eratu genuen eta lehenengo urtean 55 txirrindulari izan genituen taldean. Lasterketetara autobusean joaten ginen txirrindulari eta gurasoak, eta atzetik kamioia bizikletekin beteta. Bizkaiko eta Euskal Herriko hainbat herri zeharkatu genuen, lasterketarik lasterketa. Urte luzez ibili ginen horrela. Gero, apurka-apurka, kontua gutxitzen joan zen, gauza guztien moduan. Baina urte haiek oso politak izan ziren. Oso momentu politak bizi izan genituen, bai txirrindulariekin eta baita euren gurasoekin ere.

Zuena negozio familiarra izan da hasiera-hasieratik, Oskar. Aitak eta amak zabaldu zuten denda; arreba Dorletak ere bertan lan egin zuen, eta azken urte hauetan zeuk duzu dendaren ardura.

O.E.: Gurasoek urte luzez egindako lanari eskerrak, guk bide horri jarraitzeko aukera dugu orain, eta hori oso pozgarria da. Gurasoengaitik eta bezeroengaitik gaude gu orain hemen.

Aurten, dendaren berrogeigarren urteurrena ospatu duzue. Beste horrenbeste urtean jarraitzeko asmorik bai?

O.E.: Egingo dugu ahalegina. Guk orain arteko moduan jarraituko dugu lanean, eguneratzen eta bezeroen eskariei erantzuten. Leku guztietan lez, hemen ere eguneratu beharra dugu, gure bezeroei punta-puntako zerbitzua eta produktuak eskaintzen jarraitzeko.

Lauhortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Negutik irteteko

Inoiz baino negu luzeagoa izan delakoan nago, urtebeteko negua. Bere egun eguzkitsuekin, baina negua. Eta hasi berri dugun udaberriak barruan beste udaberri bat dakarrela dirudi: argitsuagoa, handiagoa, loretsuagoa. Badakit pandemiak luze jo dezakeela oraindik, baina badago udaberritzerik. Agian nire kontua da bakarrik, baina kutsatu gurako nuke hau, osasun-neurri moduan batez ere.

Udaberri-udaberria izango bada, horrelakoak egin beharoko genituzke: kaletik bizikletan joan eta tabernako terraza baten kontra jo, kamiseta txiki bat jantzi eta jertsea gerrian lotu, etxe huts bat okupatu, aseguru saltzaile bati seguru zaudela esan, fanzine bat egin, ertzain ez egin, iluntzeak lagunekin pasatu, zutabe hau paperean irakurri ostean nire argazkiari antiojo batzuk marraztu, kaletik ezezagunak agurtu, bizikleta batean bi joan, bankuak eta enpresak desjabetu, arbola batera igo, instrumenturen bat jotzen hasi, erdaraz dauden seinaleak ezabatu, bizilagunekin berba egin, zerbait gozoa kozinatu, mendi edo landa batean lo egin, kaletik abesten joan, logelako ohea lekuz aldatu, manifestan oihu egin, belarrarian lora bat ipini, polizia engainatu, dendako ilaran maitemindu, antzezlan bat sortu, norbait konbentzitu, Alde Zaharretik doan banaketa furgoneta baten atzeko aldera martxan igo, koplatan egin.

Egin daitezke gauza gehiago, baina hauexek dira egingarrienak, eta baita beharrezkoenak ere. Negu luzea atzean utzi gura badugu, behintzat. Udaberria beti delako udaberriagoa denok loran bagaude.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com